



## **INFORMAZIO PUBLIKOA EMATEKO FORU ARAUAREN AURREPROIEKTUARI/ FORU DEKRETUAREN PROIEKTUARI BURUZKO AURRETIAZKO KONTSULTA.**

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenaren, I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkarietasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) arauaren helburuak,
- d) ordezeko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, nola eta Arabako lurralde historikoko odonatuen edo sorgin orratzen gaineko zientzia-zabalkundeko liburu bat saltzeko publikoarentzako salmenta prezioa ezarri nahi duen xedapen bat den ematekoa, xedapen horrek eragin ahal dien herritarren eta ordezkarietasun antolakundeen iritzia jakiteko egiten da kontsulta hau.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, 2019/06/25era arte, [aurrezkontsultak@araba.eus](mailto:aurrezkontsultak@araba.eus) helbide elektronikoko postontziaren bidez.





<b>AURREKARIAK</b>	1/2013 Foru Dekretua, urtarrilaren 15ekoa, zeinak onesten baitituen Arabako parke naturaletan jendeari arreta emateko guneetan saltzen diren salgaiei ezartzeko prezio publikoak.
<b>KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</b>	Hainbat salgairen prezio publikoak onestea. Salgai horien bidez herritarrei ezagutzera eman nahi zaie Natura 2000 Sarea, Arabaren azaleraren heren bat hartzen duten eremu natural babestuen sarea.
<b>ONARTU NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA</b>	Tokiko eta landa eremuko herritarrek ondo ezagutzen dituzte Arabako eremu natural babestuak, baina hirietako biztanleek ez dute Arabako ingurumen balio horien berri. Altxor hori kontserbatu ahal izateko, ezinbestekoa da herritarrek haren berri izatea eta duen garrantziaz ohartzen hastea.
<b>HELBURUAK</b>	Foru dekretu proiektuaren xedea da hainbat salgairen prezio publikoak onestea. Salgai horien bidez herritarrei ezagutzera eman nahi zaie Arabako eremu natural babestuen sarea. Eremu horiek gure probintziaren zati handi bat hartzen dute (heren bat) eta ekosistema balio eta zerbitzuak ematen dizkigute, eta horrek gizarte ongizatea lortzen laguntzen du eta baita paisaiak, fauna eta flora espezieak eta habitatak kontserbatzen ere.
<b>ORDEZKO KONPONBIDEAK, ARAUGINTZAZKOAK ZEIN ARAUGINTZAZ BESTEKOAK</b>	Ez dago ordezeko konponbiderik